



Barakaldoko gazteek pairatzen duten lan baldintza prekarioak salatzeko, duela zenbait egun Barakaldoko gazte mugimenduak performance bat egin zuen Megaparken. Gune komertzialean zehar prekaritatea irudikatzeko antzerki bat egin zuten. Bertan zenbait enpresari baldintza txarreko lanpostuak eskaintzen zieten gazte ezberdinei: gainontzeko orduak, soldata baxuak... Azpimarratu dute MegaPark kapitalismoa eta prekaritatearen erakusle nagusienetariko bat dela. Salatu dute sistema kapitalistak gazteak prekaritatera, langabeziara (%18,4ko tasa Barakaldon)... kondentzen dituela eta prekaritatearen aurkako kanpaina bat abiatuko duela iragarri du.

alt=""

```
swfobject.embedSWF('http://www.youtube.com/v/Zd4mSVePXTg','avreloaded0','400','320',  
'9.0.28','/plugins/content/avreloaded/expressinstall.swf',  
{autoplay:'0',color1:'0xFFFFFFFF',color2:'0x000000',rel:'0',egm:'0',border:'0',loop:'0'},{wmode:'window',bgcolor:'#FFFFFF',menu:'true'}',{id:'p_avreloaded0',styleclass:'allvideos'});
```

#### **Prensa oharra:**

Barakaldoko gazteok ezin dugu gure herriaren historia alde batera utzi. Herri langile eta industrialak izan gara, nahiz eta aurreko hamarkadetan 'demokratek' gure inguruko lantegi guztiak indarkeriaz deuseztatu zituzten. Guk badakigu zenbat kostatu zitzaion gure gurasoei eta

gure aitona-amonei eskubide duinak lortzea, eta haiek lortutako guztia desagertzen ari dela ikusten dugu egunero.

Gazteok ez dugu lanik edo lan duinik eskuratzeko aukerarik gure herrian. Lan prekarioak baino ez ditugu aurkitzen zerbitzuen sektoreak monopolizatutako lan merkatuan. Gu ez gaude prest era prekarioan bizitzera, ezta gure eskubideak urratzen ikustera eta geldirik geratzera ere.

Kapitalismoaren, prekaritatearen eta kontsumismoaren adierazle nagusia da MegaPark merkatal gune erraldoia. Honen jarduerak, herritar guztien eskubideak zapaltzen ditu: ikasketak ordaindu behar dituen ikaslearenak, gurasoen etxetik emantzipatu nahi den gaztearenak, hipoteka ordaindu behar duen langilearenak, baita hilabete amaierara heltzeko malabareak egin behar dituen dendari txikiarenak ere.

Gainera, %18,4-ko langabezia tasa duen eta, beraz, kontsumorako gaitasunik ez duen biztanleria kontuan hartuta, ez dauka inolako zentzurik Barakaldo MegaPark bezalako egiturez betetzea. Honelako erabakiek multinazionalen interesei erantzuten diete, gutxiengoari alegia, agintarien onespenerekin. Horri buelta eman behar diogu eta herritarron beharrei, gehiengoari, erantzungo dion ekonomia eredia aldarrikatu, borrokatu eta eraiki behar dugu gure etorkizuna beltza izan ez dadin.

Honengatik guztiagatik, Barakaldoko gazteok kanpaina bat hasi dugu. Kanpaina honetan gaur egun gazteok bizi ditugun lan baldintza prekarioak salatuko ditugu, egoera eta datu errealak kaleratuz. Ozen esango dugu gazteok prekaritatearen aurka gaudela. Ez gara geldirik geratuko, ez dugu onartuko gure herria pairatzen ari den egoera.

Ez diogu borrokatzeari utziko gure bizi eta lan baldintzak duinak izan arte. **GAZTEOK PREKARIETATEAREN AURKA!**